



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko martxoaren 24a

42. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, 767.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Nafarroako Gobernuarentzat bigarren Informatika Zentroa (DPZ) sortu eta ezartzeko gastuak, 2014koak, finantzatzeko. Prozedura arruntaz izapidetzea (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (4. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroaren ikurrak erabiltzerakoan herritarren erabaki demokratikoa eta aniztasuna errespetatzeari buruzkoa, Eneko Compains Silva jauna lehendakaria duen batzorde sustatzaile batek aurkeztua. Izapidetzeko onartzea (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ikasleak eskolatzeko eta eskola-antolamendurako helburuak eta irizpideak direla-eta Nafarroako Gobernuak eta Hezkuntza Departamentuak darabilten politika orokorrari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak eginga (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren azterlanak egin ditzan, Miranda-Argako La Mina delakoaren ordezkari aukera bat, ureztapen tradizionala mantendu eta hobetzea bermatuko duena, aurkeztu eta aplikatzeko, eta La Mina babesteko behar diren jarduketak egin ditzan. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Ezkerria-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen baitio Siriarentzat etorkizunerako sistema demokratiko bat, kultura, etnia eta erlijio ezberdinen errespetuan oinarritua, diseinatzeko proposamenari. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroako Gobernuak ez duela bete Parlamentuaren agindua, Osasun arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legean jasotakoa, eta Osasuneko kontseilaria gaitzesten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baititu Defentsako ministro Pedro Morenés jaunaren hitzak, Bardeako tiro-poligonoko maniobra militarretara egindako bisitan aipatu maniobrak "gizarte gastutzat" jo baitzituen. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Kulturaren Behatokiaren txostenean Nafarroak eskuratutako emaitzei buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (10. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuak "NUPen finantziazioa: Iruñeko eta Tuterako campusak" kontzepturako eman duen zenbatekoari buruzkoa, Juan Carlos Longás García jaunak egina (11. or.).

—Galdera, 2013an Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egindako prestakuntza-ikastaroei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 767.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Nafarroako Gobernuarentzat bigarren Informatika Zentroa (DPZ) sortu eta ezartzeko gastuak, 2014koak, finantzatzeko.

PROZEDURA ARRUNTAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2014ko martxoaren 13ko Osoko Bilkurak bazter utzi zuen Foru Lege proiektu hau irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea: "Foru Lege proiektua, 767.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Nafarroako Gobernuarentzat bigarren Informatika Zentroa (DPZ) sortu eta ezartzeko gastuak, 2014koak, finantzatzeko." Foru Lege proiektua 2014ko martxoaren 7ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Legebiltzarreko 158.4 artikuluekin bat, hona ERABAKIA:

1. Aipatu foru lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Xedatzea epe bat irekitzen dela, **2014ko martxoaren 24ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote foru lege proiektu horri.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dioen legegintzarako ekimena erabiliz, Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuzá García jaunek Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena,
Nafarroako Toki Ogasunei buruzko
martxoaren 10eko 2/1995
Foru Legea aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Bizitzen ari garen krisi ekonomikoko egoeran, zenbait administrazio akordioak egiten ari dira irabazi asmorik gabeko entitate batzuekin, zeinen bidez titulartasun publikoko etxebizitzak lagatzen baitzaizkie, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen ostatu emateko.

Etxebizitzak egoera txarrean egon ohi dira kasu horietako askotan; hori dela-eta, akordioetan jasotzen da irabazi asmorik gabeko entitateak behartuta daudela egin beharreko erreformak egitera etxebizitzetan, erabili ahal izan daitezzen.

Hartara, etxebizitzak jabetza publikokoak direnez eta erabilera soziala izan behar dutenez, uste dugu horietan egiten diren erreformek eraikin, instalazio eta obren gaineko zergatik salbuetsita egon behar dutela.

Artikulu bakarra. Lerrokada berri bat gehituko zaio Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 168. artikuluari.

168. artikulua. Bigarren lerrokada.

“Halaber, Nafarroako Foru Komunitatearen, Estatuaren edo Nafarroako toki entitateen jabetzako etxebizitzetan egindako edozein eraikin, instalazio edo obra salbuetsirik egonen da zerga hau ordaintzetik, baldin eta haiek irabazi asmorik gabeko entitateei laga bazaizkie zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen laguntzeko.”

Foru Lege proposamena, Nafarroaren ikurak erabiltzerakoan herritarren erabaki demokratikoa eta aniztasuna errespetatzeari buruzkoa.

IZAPIDETZEKO ONARTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen herriaren legegintza-ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, Nafarroaren ikurak erabiltzerakoan herritarren erabaki demokratikoa eta aniztasuna errespetatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan batzorde sustatzaile batek, zeinaren lehendakaria Eneko Compains Silva jauna baita.

Ikusita Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek izapidetzeko onartzeari buruz egindako txostena,

aipatu foru legearen 5. eta 7. artikuluekin eta Erregelamenduaren 149.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroaren ikurak erabiltzerakoan herritarren erabaki demokratikoa eta aniztasuna errespetatzeari buruzko Foru Lege proposamena, Eneko Compains Silva jauna buru duen Batzorde Sustatzaile batek egina.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ikasleak eskolatzeko eta eskola-antolamendurako helburuak eta irizpideak direla-eta Nafarroako Gobernuak eta Hezkuntza Departamentuak darabilten politika orokorrari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko jabeldura, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ikasleak eskolatzeko eta eskola-antolamendurako helburuak eta irizpideak direla-eta Nafarroako Gobernuak eta Hezkuntza Departamentuak darabilten politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko parlamentari Marisa de Simón Caballero, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariari, Eledunen Batzarrean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Jabeldura, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ikasleak eskolatzeko eta eskola-antolamendurako helburuak eta irizpideak direla-eta Nafarroako Gobernuak eta Hezkuntza Departamentuak darabilten politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2014ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren azterlanak egin ditzan, Miranda-Argako La Mina delakoaren ordezkoko aukera bat, ureztapen tradizionala mantendu eta hobetzea bermatuko duena, aurkeztu eta aplikatzeko, eta La Mina babesteko behar diren jarduketak egin ditzan.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren azterlanak egin ditzan, Miranda-Argako La Mina delakoaren ordezkoko aukera bat, ureztapen tradizionala mantendu eta hobetzea bermatuko duena, aurkeztu eta aplikatzeko, eta La Mina babesteko behar diren jarduketak egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Miranda-Argako ureztaketa tradizionalak etenik darama hilabete batzuk, La Mina hondoratu izanaren ondorioz. La Mina XIII. mendean eraikitako tunel bat da; ia 1.200 metro luze da eta mirandarrak Berbintzanako udal mugapetik beren ureztalurreraino ura ekartzeko baliatzen dute.

Hondoratzeak ohikoak izan dira eraikuntza hidrauliko horretan, baina oraingo honetan, Nafarroako Ubidearen lehen faseko ureztalurretik heldu

diren iragazketen eraginez, hondoratzeak konponbide zaila dauka, epe motzera gutxienez ere. Oso litekeena da tunel horren egoerak eta jasan behar duen presio hidraulikoaren ondoriozko narriadurak ezinezkoa egitea ureztalur-ubide gisa erabili ahal izatea. Halere, ingeniari-tza zibileko obra horren balio historikoa ezin da lurpean gelditu interes pribatu batzuei mesede egiteko; izan ere, interes horiek, zeinek ez baitiete onurarik ekarriko mirandarrari, azaldu ere ez zaizkie azaldu ez Miranda-Argako bizilagunei ez Nafarroako gainerako herritarrei ere.

Herria bera konponbideak eskatzen ari da hondoratze hori dela-eta. Beraz, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatzen dio –zehazki, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioeko Departamentuari– alaitz azkarren egin ditzan egin beharreko azterlanak, Miranda-Argako La Mina tunelarentzako ordezkoko aukera bat planteatzeko eta gauzatzeko, tradiziozko ureztaketa mantentzea eta hobetzea bermatuko duena.

2. Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatzen dio kontusail bat sor dezan lehendabiziko puntuna eskatutakoa betetze aldera.

3. Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatzen dio –zehazki, Kultura Departamentuari– Miranda-Argako La Mina historia-babeseko molde gorenarekin zain dezan, eta beharrezkoak diren jarduketak guztiak egin ditzan egoera onean konterbatu dadin.

Iruñean, 2014ko martxoaren 11n

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez, Txentxo Jiménez Hervás eta Marisa de Simón Caballero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesaren baitan Siriarentzat etorkizunerako sistema demokratiko bat, kultura, etnia eta erlijio ezberdinen errespetuan oinarritua, diseinatzeko proposamenari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1.- Nafarroako Parlamentuak bere babesaren baitan Siriarentzat etorkizunerako sistema demokratiko bat, kultura, etnia eta erlijio ezberdinen errespetuan oinarritua, diseinatzeko proposamenari, eta garrantzi berezia ematen dio emakumeak eredu sozial eta politikoa berria parte hartzeari.

2.- Nafarroako Parlamentuak opa du proiektu politiko demokratiko horrek gure erakundearen eta nazioartean babesik handiena izatea, halako moduan non amaiera emanen baitaie Mediterraneo herrialde historiko horrek bizi dituen une tragikoei".

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroako Gobernuak ez duela bete Parlamentuaren agindua, Osasun arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legean jasotakoa, eta Osasuneko kontseilaria gaitzesten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Gobernuak ez duela bete Parlamentuaren agindua, Osasun arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legean jasotakoa.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez onartezina da Nafarroako Gobernuak ohartuki urratzea 2/2013 Foru Legea, eta errebindikatu egiten du aipatu legeak jasotako eskubidea, Osasun Depar-

tamentuak Nafarroako Parlamentura ekarri beharreko funtzionamendu plana eztabaidatu eta bozkatzekoa.

3. Nafarroako Parlamentuak beste behin gaitzesten du Osasuneko kontseilaria, errespeturik ez izateagatik ez Parlamentuari –izan ere, ez du gehiengoak onetsitako legea bete– ez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erabil-tzaileei".

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak
arbuiatu egiten baititu Defentsako ministro Pedro Morenés jaunaren
hitzak, Bardeako tiro-poligonoko maniobra militarretara egindako
bisitan aipatu maniobrak "gizarte gastutzat" jo baitzituen.**

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran,
Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak
ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Parlamentu honek arbuiatu egiten ditu
Defentsako ministro Pedro Morenés jaunaren hi-
tzak”.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Kulturaren Behatokiaren txostenean Nafarroak eskuratutako emaitzei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Kulturaren Behatokiaren txostenean Nafarroak eskuratutako emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Kulturaren behatokiaren emaitzen analisiari buruzko ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Fundazio garaikideak kulturaren behatokia jarri zuen abian 2009an, sektore horren intereseko auziak aztertzeko. Sei hilean behin, kontsulta bat egiten du, kulturaren egoeraren diagnosia egiteko. Behatokiak egindako bederatzigarren kontsultan, zeina 2013ko azaroa eta 2014ko urtarrila bitartean egin baitzen, Nafarroako Foru Komunitatea hamahirugarrena suertatu zen programazioaren kalitateari dagokionez, aurreko urtetik lau puntu jaitzita.

Nafarroako kultura kultur berrikuntzaren eta kalitatearen azken postuetan uzten duten emaitza horiek ikusita, honako galdera hau egiten dugu:

1. Kultura Departamentuak zer balorazio egiten du Nafarroak lortutako emaitza horiei dagokienez?

2. Zer neurritan da kulturarako aurrekontuak etengabe eta nabarmen jaitzi izanaren errua?

3. Kultura Departamentuak zer neurri aurreikusi du egoera hori nabarmen alda dadin?

Iruñean, 2014ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Nafarroako Gobernuak “NUPen finantziazioa: Iruñeko eta Tuterako campusak” kontzepturako eman duen zenbatekoari buruzkoa.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak “NUPen finantziazioa: Iruñeko eta Tuterako campusak” kontzepturako eman duen zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 51,794 milioi euro aurreikusi ditu 2014rako, “NUPen finantziazioa: Iruñeko eta Tuterako campusak” kontzepturako. Zein irizpideri jarraikiz ezarri da kontusail horren zenbatekoa? Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politikak zer azken inpaktu dauka NUPen aurrekontuetan?

Iruñean, 2014ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, 2013an Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egindako prestakuntza-ikastaroari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, 2013an Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egindako prestakuntza-ikastaroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2013an egindako prestakuntza-ikastaroak direla-eta:

– Lehiaketarik gabe egindako ikastaroak:

Ikastaro kopurua eta ikastaroen zerrenda, ikasle kopurua (osoa eta ikastaroz ikastaro), betetako aurrekontu osoa, ikastaro bakoitza egin duen entitate (azpikontratata, kasua bada) eta lehiaketa bidezko sistema ez jarraitzeko aplikatu den araudia.

– Lehiaketa bidezko sistemaren bidez egindako ikastaroak:

Ikastaro kopurua eta ikastaroen zerrenda, ikasle kopurua (osoa eta ikastaroz ikastaro), betetako aurrekontu osoa, ikastaro bakoitza egin duen entitatea (azpikontratata, kasua bada) eta lehiaketa bidezko sistema jarraitzeko aplikatu den araudia.

Iruñean, 2014ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

